

MAYORREK PRESOK PROZESUAN ERAGITEKO ERABILIKO DITUELA ESAN IZANA KEZKAGARRIA DELA DIO KARRERAK

Senideak: «Gure sofrikarioa bere interesen arabera dosifikatuko duela onartu du PPk»

■ Senideen iritziz, Espainiako Gobernuaren erabakiak «Madrilen miseria moral eta politikoa» agerian uzten du

■ Tomas Karrerak esan zuenez, Mayor Orejak berak onartu du presoak Euskal Herrian ireki den prozesuan eragiteko tresna direla

■ Presoen eskubideak ez direla negoziatzen gogorarazi zioten PPren Gobernuari; «edo errespetatu edo ukatu egiten dira»

Eider Goenaga / Donostia

SENIDEEN iritziz, Espainiako Gobernuak 105 preso espetxez aldatu eta Euskal Herrira hurbiltzen dituela esatea euskal gizarteaz «tru-fatzea» da. Tomas Karrera Senideen koordinatzaileak gogor kritikatu zuen herenegun iragarri neurria, presoen eskubideekin erabilera politikoa egiten dela agerian uzten baitu. Halako erabakiek Gobernuaren «miseria moral eta politikoa» agerian uzten dutela adierazi zuen, eta herenegun «PPren Gobernuaren borondatea ikusteko parada» izan zela. Izan ere, Karrerak nabarmendu zuen hurbiltze horrek ez dakarrela «apenas diferentziarik».

«Madrilgo Gobernuak onartu du espetxe politikak dakarren sofrikarioa bere interes politikoen arabera dosifikatuko duela», adierazi zuen Karrerak. Horren aurrean presoen senideek duten «kezka eta haserrea» agertu zuen. «Kezka eta haserrea, Mayor Orejak argi eta garbi utzi baitzuen euskal presoak Euskal Herrian irekitako prozesu politikoan eragiteko erabiliko dituela».

Bestalde, Senideek Azna-



EDURNE KOCH

Senideetako Nagore Irastorza eta Tomas Karrera, zerrendako presoen senideez inguratuta, atzo Donostian eskaini zuten prentsaurrekoan.

ren Gobernuari gogorarazi zioten «eskubideak edo errespetatu edo ukatu» egiten direla, ez dagoela erdibiderik. Ildo horretan, herenegun ezagutarazi zuen erabakia «Gobernuaren keinu» bat dela esan dutenei erantzun

ziren Karrerak. «Hemen keinu bakarra presoak kaleratzea izango litzateke; gainontzekoa presoek dagozkien eskubideak errespetatzea da. Bake prozesuan presoak erabili behar badituzte, haiek kaleratzeko izan dadila»,

adierazi zuen. Gainera, Karrerak nabarmendu zuen Gobernuak mugimendua ongi pentsatuta egin duela, Euskal Herrira ekarritako 26 presoetatik 15 euren probintzietatik kanpoko espetxetara eramango baitituzte.

Herenegun ezagutarazitako aldaketak epe laburrean egingo dituela iragarri zuen atzo Gobernuak. Informazio agentziek zabaldu zuten, irailaren amaierarako preso guztiak jada dagozkien espetxeetan egotea espero dute.

datuak

Gobernuak iragarritako lekualdatzea datuetan

■ Senideek erabakiaren irakurketa egin zuten atzo, datuak kontuan hartuz. Honako puntuak nabarmendu zituzten:

Euskal Herrian iazko preso kopuru bertsua • Iaz, su-etena iragarri zenean, Euskal Herrian 55 preso inguru zeuden; orain, mugimendu berriekin, 66ra baino ez da igoko.

Kolektibokoak 103 • Preso Politikoen Kolektiboko 103 preso daude Gobernuaren zerrendan, eta ez 105 Madrilek esan bezala. Hirugarren gradua 3 presorentzako proposatu da, eurak inoiz eskatu gabe.

Euskal Herrira preso gaixo bakarra • Kolektiboko sei presok eskatu dute euskal herriratzea, hemen ebakuntza egin diezaieten. Zerrendan hiru daude eta bakarra ekarriko dute Euskal Herrira: Julen Perez Cambra. Koro Egibar —95etik kalean behar luke— Almeriatik Logroñora eramango dute eta Raul Alonso Puerto Ietik Cuencara.

68 urte, gaixorik, eta Palentziara • Antton Garcia del Molino preso kolektiboko zaharrena da (68 urte). Osasun arazoak ditu, baina Casteillotik Palentziara eraman dute.

50 hiru laurdenak beteta • Kolektiboko 113 presok dituzte hiru laurdenak beteta, eta zerrendan horietako 50 daude. 50 horietatik 16 baino ez dituzte ekarriko Euskal Herrira, eta 16 horietako lauk berehala zigor osoa beteko dute.

Hamar preso urtebeteen kalean • Espetxe Erakundearen arabera, hiru laurdenak bete dituzten 50 presoetatik 10 kalean izango dira datorren uda baino lehen.

Zazpi preso urrunago • Jose Antonio Galarraga, Luis Angel Galarza, Carlos Larrañaga, Peio Odriozola, Juan

Antonio Olagorta, Oroitx Salegi eta Andoni Urrestarazu urrunago dauden espetxeetara eramango dituzte.

Hiru bikote banatuta • Orain arte espetxe berean zeuden hiru bikote banatu dituzte: lehena, Avila-Kordoba; bigarrena, Valladolid-Logroño; eta hirugarrena, Avila-Lugo.

Distantzia murriztu, zailtasun gehiago • Senideek arazo gehiago izango dituzte bisitetarako; askok ezingo dute Senideen autobusetan joan; hainbat espetxe gertuago egon arren, errepideak okerragoak dira...